

Red Blaze

35 eta 17 urte bitarteko gazte hauek 2006an ekin zioten musika egiteari eta abendua baino lehen maketa kaleratuko dute.

1 2006an sortu zen Red Blaze. Ugutzek eta Anderrek bertsoiak jotzen zituzten eta Jonek ipinitako iragarkiari erantzun zioten. Jon beste talde batetik zetorren, 'Barra libre' taldetik, eta baxu eta bateria bila zegoen.

2 Hasieran 'Barra libre' izena hartu genuen, baina urte batzuk elkarrekin egon eta gero, aldatzea erabaki genuen. Ugutzek 'Red red' zuen buruan eta Anderrek 'Blaze' eta izen biak batuta Red Blaze sortu genuen. Ekaitz gorria, distira, sugarra... horrelako zerbait esan nahi du.

3 Taldean 4 gara baina Ander Basaguren (bateria eta koroak), Jon Ander Bollar (ahotsa eta gitarra) eta Ugutz Lasunción (gitarra eta koroak) hasieratik gaude taldean. Sortu ginenetik 4 baxujole izan ditugu. Gaur egungoa Andoni Conde da, duela 4 hilabete hasi zen gurekin.

4 Taldea 'Barra libre'ren jarraipena dela esan daiteke musika estiloari dagokionez. Bakoitzak gure gustuak ditugu, gure izaerak, gure influentziak... baina estiloa rockeroa izan da beti.



5 Guk sortutako abestiak ditugu baina bertsoiak ere egiten ditugu: The Cult, ZZTop, Bryan Adams eta Diamond Dogs taldeen bertsoiak, besteak beste. Guk sortutako abestietan bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu baina Ugutz da lan honetan pisu gehien duena. Ingelesez abesten dugu eta emakumeak, jaiak eta injustiziak dira ardatz gure kantuetan.

6 Hasieran Legarreko lokaletan entseatzen genuen, Eibarren. Ongaraiko lokalak martxan ipini zirenean, berriz, hona etorri ginen. Astean birritan entseatzen dugu gutxienez: asteazken eta ostiraletan. Batzuetan zapatuetan entseatzen dugu.

7 Gure debuta iazko Vertigo Roc-ken izan zen eta oso sentsazio onak izan genituen. Azaroaren 3an Infreñu tabernan jotzeko zita lotu dugu eta hori prestatzen dihardugu. Taldeko gazteek kontzertuetan jotzeko gogoia dute, nagusienek, berriz, musika era lasaiagoan hartzen dugu.

8 Maketa bat grabatuta dugu baina editatu barik dago. Egunen batean argia ikusiko du, Gabonak baino lehen seguruenik.

9 Myspace-n gaude eta bertan gure maketako abestiak entzuteko aukera izan dezake edonork: www.myspace.com/theredblaze

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen